

» MUSIKA & DANTZA

Flamenko feminista



Montserrat Auzmendi del Solar

Sara Barasen espektakuluak ikustea beti da plazera, dudarik gabe. Bere estetika garbi eta estilizatua, perfekzio teknikoa eta, orokorrean, gustu bikaina, Barasen ezaugarri nagusiak dira. Halere, hortik aparte, zentratu nahi nuke nire arreta alderdi zehatz batean: bere ikuskizunean emakumeari ematen dion paperean hain zuzen ere.

Ezin dugu esan flamenkoan emakumeek ez dutenik rol protagonista. Bai, askotan flamenkoaren munduan andre pasionatuak agertzen dira, indartsuak ere bai, baina ohikoa da haien etorkizuna gizonek baldintzatua izatea. Sara Barasek planteatzen duen emakumea ez da horietakoa. Emakume indartsua da, eta ez du bere burua gizon baten ondoan neurtzen, edo gizonaren balorazioa kontuan hartuz. Bilbon eskainitako *Sombras* muntaiari haxe irakurri genuen eskuko egitarauan: "Esango dut behin itzal izan nintzela, inguratu, handia, txikia (...). Itzalak nigan, itzalak nigandik..."

Espektakuluak ez zuen argumenturik, baina kateatzen ziren eszenetan emakumearen go-goetak irudikatzen dira, bere burua menderatzen duen emakume baten pentsaketak, gizonaren inongo erreferentziarik gabe. Ohiko flamenkotik urrundu egiten da Baras beste ikuspegi bat eskaintzeko.

Sombras

Zuzendaritza eta koreografia:

Sara Baras.

Artista gonbidatua:

José Serrano.

Musika: Keko Baldomero.

Bilboko Arriaga Antzokia.

Irailaren 22a.



Alderdi kontzeptuala alde batera utzita, Sara Barasek burutzen dituen emakumezkoen eta gizonezkoen koreografiak oso berdintsuak dira, oso estilizatuak, esan bezala, baina inongo topikotan erori gabe. Barasek izugarritzko birtuositatea du zapateatuan, dantza basatia egiten du, eta aldi berean dotore eta estetikoa. Bestalde, talde osoaren exekuzioa akatsgabea

izan zen. Momentu batzuk azpimarratu beharko genituzke: Sara Barasek eta José Serranok dantzatutako balsa, Keko Baldomero eta Leonard Cohenen musikarekin, benetan zoragarri eta iradokitzailea, baita Serranok dantzatutako tango apartak ere. Sekulako dantzaria da Serrano, pasionatua, teknikoki perfektua, eta kemen berezia transmititzen du.

Gainontzeko guztia, goi-mailakoa. Luis F. Dos Santos jantziak ametsetakoa ziren, oso eleganteak; Óscar Gómez de los Reyesen argiztapenak giro egokia lortu zuen uneoro eta Israel Fernández eta Rubio de Pruna kantariak aktuzio apartak egin zituzten.

Sara Pereyra Baras flamenko dantzari eta koreografoa, (San Fernando, 1971).